

6.000 liburu eta aldizkari berri jaso ditu euskaltzaindiak

Jose Antonio Arana Martixa euskaltzain emerituak egin du dohaintza

Iruñea. Jose Antonio Arana Martixak euskaltzain emerituak bere biblioteka pertsonalaren dohaintza egin dio Euskaltzaindiari. Orotara, 6.000 liburu eta aldizkariz osatua dago liburutegia. Orain, Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka ren zerbitzuek katalogazio lanak egingo dituzte eta ondare guztia irakurle eta ikertzaileen eskura jarriko. Katalogoa hiru urteko epean argitaratuko da. "Pozik, oso pozik". Horrela agertu zen Jose Antonio Arana Martixa hitzarmena sinatu zuteneko ekitaldian: "Herriaren eta euskararen aldeko ekarpena da nirea".

Euskaltzaindiari eman diona Arana Martixaren biblioteka pertsonala da, edo, hobe esanda, urte askoren buruan osatu duen lan- biblioteka, bere lanak egiteko baliatu dituen liburuak eta argitalpenak biltzen dituen. Gaiei dagokienez, denetarik aurki daiteke, besteak beste, hizkuntza, historia, zuzenbidea, musika, folklorea edota etnologia. Arana Martixak gehien maite dituen autoreak, hots, Luis Luziano Bonaparte eta Resurreccion Maria Azkue, liburutegi horretan daude.

Jose Antonio Arana Martixa Gernika-Lumon jaio zen, 1931eko martxoaren 10ean. Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatua da eta 1978an Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako zuzendari izendatu zuten. Urte bete beranduago, 1979an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle aukeratu zuen eta 1988ko urriaren 28an, aldiz, euskaltzain oso. Gipuzkoarra euskaltzain emeritua da 2006ko uztailaren 20tik.

Argitaratu dituen lanen artean, honakoak aipatu daitezke: Música Vasca (1976); Elai-Alai, Euskal Herriko lehen koreografia taldea (1977); Resurreccion Maria de Azkue (1983); Eresoinka. Embajada Cultural Vasca, 1927-1939 (1986); Gernikako Andra Maria Eliza (1988); Bibliografia Bonapartiana (1991). >uxue